

2018ko TXOSTENA

MUGARIK GABE



MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org



Garapenerako Lankidetzeta GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependientea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

ARABA

“Itziar” Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 - araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA


Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbo
94 415 43 07 - bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977 - gipuzkoa@mugarikgabe.org

www.mugarikgabe.org

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0) Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_

2018ko TXOSTENA MUGARIK GABE



MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

2018ARI BEGIRADA 2019ARI EKITEKO

Memoria gisa testu bat idazteko asmoa dagoenean, gertaera nabarmenenen errebaso mental bat egin ohi da. Horiek izango dira ixten den urtean gertatutako eta bizitako kontakizunaren muina. Hala ere, oraingo honetan inoiz baino beharrezkoagoa dirudi, atzerako denboretan begirada jarrita, aurtengo urteari ekiteko premia azpimarratzea.

Europar eta Amerikan, nola ultraeskuinaren igoera hala ezkerrearen herabetasuna 2018an etengabeko zerbait izan zen, bizi dugun urte honetan ondorio latzak izango dituen. Mende honetako lehen bi hamarkadetan, eta Latinoamerikan modu berezian, neoliberalismoarentzat alternatibak badaudela mahaigaineratu zuten eraldaketa prozesu garrantzitsuak garatu ziren. Horrek eskuin kontserbadorea eta sozialdemokrazia lekuz kanpo utzi zituen, programa neoliberalak itsuki bere egiteak eta programa horien kostuak ordaintzearekin nekatuta zeuden gehiengo handien matxinadak, agertoki politikoa hamarkadatan menderatzen desegite etapa batetara eramane zituen. Egun, ezker aurrerakoia da, hein handi batean, lekuz kanpo dagoena eta, neurri batean, euren proposamen eraldatzaileek higituta. Eta horrek Latinoamerikarako zein Europa zaharrerako balio du. Azken horretan, krisi urte gogorrenetan europar hegoaldeko errebeldia prozesuen nolabaiteko irakinaldiaren ostean, sistema nagusiak etxekotuta agertzen dira gehienak gaur, eta euren proposamen eraldatzaileetan akituta, biztanlerian konpromisoa edo ilusioa sortzeko gaitasuna gutxituta (Espainiako Estatuak, Grezia...). Zorionez, hainbat mugimenduren indartzea ikusi dugu (eta haietan parte hartu), mugimendu feministarena kasu, jendarte patriarkalen sakoneko sareak eta berezkoak dituzten indarkeriak zalantzak jartzen dituen.

Egoera horrek, ordea, ezin suposa dezake kapitalismoaren erabateko garaipenaren kontsigna, bere fase neoliberaleran, orain bai, behin betikoa denik, pasa den mendeko 90. urteetan bezala (ideologiaren amaiera). Kontrara, indar ultraeskuinen igoerak, edo neofaxistek (Brasil, Austria, Hungaria, Polonia, Italia, Andaluza...), neoliberalismoaren erabateko porrotaren adibide argia dira. Nahita bilatutako desmobilizazio soziala eta hobekuntza errealean falta, biztanleriaren sektore zabalek duten haserrera batzen dira, neoliberalismo horren ondorio gogorrenak etengabe euren gain hartzeagatik sortu dena. Horrela azaltzen dira, hein handi batean, Estatu Batuetan D. Trumpena bezalako garaipenak sistemaren eliteen aurrean, edo Britainia Handian Brexitaren bozketa landa eremuetako eta hiri-bazterreko sektoreen nekeak bultzatuta, pobrezia eta gehiengoaren bizi baldintzen hondatzea, eta gutxiengo ekonomikoaren eta kideko politiken aberaste iraunkorra besterik ekartzen ez duen Europar Batasunaren aurrean.

Bestalde, 2018a Brasilgo gobernuak Jair Bolsonaroaren eta bere programa ultraneoliberalaren esku geratuta itxi zen. Arrazista, homofoboa, antiekologista, genero politiken aurkakoa eta fundamentalista kristaua, gobernu berri hori definitzeko eskuarki erabiltzen diren kalifikatzaileetako batzuk dira. Alabaina, bere kudeaketaren gakoa, beste behin ere, muturreko neoliberalismoaren errezeta zorrotzenak aplikatzera bideratuta egongo da, agerikoa den izaera autoritarioarekin, Partido de los Trabajadores alderdiaren gobernuak urteetan lortutako ezin ukatuzko aurrerapen sozialak desegitea helburu.

Bolsonaro, ordea, ez da politika horien adibide gordina besterik, azken urtean kontinente amerikarrean beste presidente batzuen eskutik berresten joan direnak, hala nola, Mauricio Macri Argentinan, Iván Duque Kolombian, Sebastián Piñera Txilen edo Jimmy Morales Guatemalan. Transnazionalak eta oligarkiek, berriz ere, espazio kontinentala bilatu dute, euren agintera men eginda eta bertako herrien lepotik etekinak bilatzeko guttiz lotua dagoena.

Haatik, eta bestelako klabe batean, 2018an egoera itxaropentsuak egon dira. Mexikon Andrés Manuel López Obradorren garaipenak herrialde horretako milioika gizon eta emakumeren bizi baldintzen egoerak hobetzen saiatuko den politika sozial ezkertiarretara iraultzen du herrialde hori. Dudarik gabe kontinentearentzat gako positiboa da eta ilusio berriak irekitzen ditu Boliviarekin batera, aurrerapen errealtatea izaten jarraitzen duena. Azken horretan, zenbait indarrak azkarrago joatea nahiko luketen arren, egiturazko aldaketak argiak dira eta, eskuinaren areagotzearen



aurrean, beste politika batzuk egitea posible denaren erreferente bihurtu da, neoliberalismoarentzat alternatibak badaudenaren eredu.

2018an Latinoamerikan gertatutakoaren inguruan kontu gehiago azpimarra genitzake. Iparraldera doazen Ertamerikako migratzaileen karabanen mugimendua martxan jartzea, adibidez, ez amets amerikarraren bila, Honduras, El Salvador edo Guatemala bezalako herrietan euren bizitza bihurtu den amesgaiztotik irteteko beharrean baizik. Baita Kolonbiako bake prozesuaren aurreratze epelak ere, gaur I. Duqueren eskumako gobernuak La Habanako Akordioak (FARCEkin zegoen gerrari amaiera eman ziotenak) ez betetzearekin, FLN-rekin negoziaketa mahaia ixtearekin edo, iraunkorra dena, herrialde osoan zehar lider sozialen etengabeko hilketekin (2018an berrehundik gora) talka egiten dutenak.

Europara salto egiten badugu, ordea, egoera ez da hain ezberdina. Europa itxi egiten da euren herrietan (Afrika, Ekialde Hurbila...) oraindirik ez etorkizunik ez dutenen migrazioari aurre egiteko, egoera horietan duen erantzukizuna ezkututuz, bizitza duinerako biztanle eta herrialde horien benetako aukerak itsutzen dituzten gerrate, esplotazio eta baliabideen indarrezko ebastea sustatu izana gordeta. Europak ez du bere bidea aurkitzen eta demokraziaren eta giza eskubideen sorleku izatetik, bata zein bestearen utzikeria agerikoa egitera pasa da. Migrazioaren aurkako politikak ez dituzte soilik mugak ixten eta harresiak eraikitzen, beste kontu argi batzuk zalantzak jartzeaz lagunduta joaten dira, hala nola, emakumeen eskubideak, gazterienak, lan eskubideak edo herrienak. Mendeetan zehar Europa zahar honek borrokatu zituen eskubideak eta gaur froga genezakeenez, Simone de Beauvoirrek esango lukeen bezala, ez dira eskuratutako eskubideak, barneratutakoak, indar politiko zehatzek berriz ere zalantzan jartzen dituztenak baizik, gaindituak uste ge-



nituen denboretara argiki atzera eginda, orain hamarkadak erregimen faxistetara eraman gintuztenetara, gerra bortitzetara bulkatuta.

Baina lehenago elementu positiboak adierazi ditugun bezala, Mexiko eta Bolivia herrialdeetako emaitzak eta aurrerapenak, edo mugimendu feministaren hazkundea, justua da ere milaka antolakunde eta gizarte mugimenduren indarra aitortzea, bai Latinoamerikan bai Europan, 2019an sistema nagusiari alternatiba eraldatzaileak planteatzen jarraitzen dutenak.

Eta horrek guztiak esan nahi du, gaur inoiz baino gehiago, beharrezkoa dela ahaleginak eta borrokak bikoiztea guztiontzako orainaldi eta etorkizun hobe baten alde, ez soilik banatu nahi ez duten konfort, aberastasun eta ongizateko mundu paralelo bat eraikitzeko ahaleginetan dabilzan elite ekonomiko eta politiko horientzat.



MUGARIK GABEREN URTEURREN FESTA

2018ko urtarrilaren 28an gure 30 urteak ospatu genituen. Data ofiziala abenduaren 25ean bazen ere, gure momentua mugimendu askoko data horietatik kanpo izatea nahiago genuen. Ospakizun jai bat izan zen, baina baita aitortza bat, Latinoamerikako gure kide guztiei, Mugarik Gabetik pasatako eta euren denbora eskaini duten pertsona guztiei eta eraldaketa sozialeko amets hau elkarbanatzen dugun antolakunde guztiei aitortza. Puri ere agurtu genuen, Mugarik Gabeko Koordinatzaile izateari utzi dio Koordinazio Kolektiboko talde berriari bide emanda. Alberto ipuin kontalariaz gozatu genuen, Las Kapritxosas pailazoaren umoreaz eta Goiuriren musikaz. Mila esker egun horretan gure ondoan egon zineten guztiei.

Agertzerik izan ez bazenuten, gure Youtube kanalean «30 años de Mugarik Gabe» bideoa ikustera gonbidatzen zaituztegu. 30 urte hauetan lagundu gaituzuen guztioi eta Mugarik Gaberen proiektuak aurrera jarraitzea posible egiten duzuen guztioi **ESKERRAK** emateko gure modua da.



MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org



GENERO SAILA



HEZKUNTZA

Hezkuntza prozesuetan indarkeria matxistaren aurka-ko borrokaren estrategiarekin jarraituta, aurren bi ildo sakondu ditugu bereziki: Euskal Herriko herri eta plazetara eramane dugun erakusketa bat eta emakumeentzako indarkeriarik gabeko jendarte baterantz gerturatzeko esperientzien trukaketa bat, Euskal Herriko, Kolonbiako eta El Salvadorreko emakumeen antolakundeekin, erakundeekin eta gaian profesional direnekin San Salvadorren egin zena. Era berean, ikusezinean Bidaizten ekimenaren bidez, genero ekitatearen aldeko antolakunde aldaketa prozesuak bultzatzeko estrategiarekin jarraitzen dugu.

Memoria Eraikiz

Jakintza-alor anitzeko instalazio artistiko bat da, indarkeria matxistaren biktimak izan diren eta bizirik atera diren emakumeen bizipenak jasotzen dituenak. Indarkeria horiek ezagutzea da helburua, sistema patriarkal hau irauli eta gu geu eraldatzea. Emakume horien kontakizunen bidez indarkeriak beraien bizitzan izandako eragina, horri nola aurre egin dioten ikusi eta euren ingurutik eta jendartetik zer espero duten ezagutuko dugu. Emakumeen ahotsak berreskuratzeko apustu bat da, ez dugulako nahi ahots horiek historiako bazterrean zokoratuta jarraitzea, gure memorian gorde nahi ditugu, memoria kolektibo bat berreraiki eta berriz gerta ez dadila oihu egin.

Erakusketa Amurrión, Donostian eta Portugaleten egon da ikusgai, asteburu bat udalerriri bakoitzean eta

bertatik 550 pertsona baino gehiago pasatu dira, euren hausnarketak eta elkartasun eta salaketa mezuak utzi dituzte gure webgunean zintzilikatu ditugunak www.mugarikgabe.org/floresenelasfalto.

Erakusketa horrek bere bidea egiten jarraituko du, datozen urteetan, Euskal Herriko toki gehiagotan zehar.



Memoria Eraikiz Portugaleten. 2018ko azaroa.

Estrategia feministen trukea El Salvadorren

Arabako Emakumeen Asanbladarekin elkarlanean eta Feministas intercambiando Estrategias izena jarri dugun proiektu zabalago baten parte izanda, erakunde eta antolakunde feministen gaitasunak indartzean bidea egitea hartu genuen helburutzat, emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitzetara gerturatzeko ezinbestekoak, emakumeen sexu eta ugalketa eskubidea

ere bermatua izango den bizitza eredua. Maiatzean eta Ekainean Gasteizko mugimendu feministaren barnean hainbat eztabaida saio egin genituen, askotariko gaiei ekin genien, indarkeria matxisten aurrean, emakumeentzako indarkeriarik gabeko jendartera gerturatzeko sistema judizialek jasotzen ditugun muga eta oztopoen aurrean eta emakumeen eskubideen aldeko pertsona geroz eta gehiagok jasaten dituzten kriminalizazio mekanismoei aurre egiteko estrategien inguruan mugimendu feministatik ematen diren erantzunak pentsatzeko eta birpentsatzeko aukera eman zigutenak.

Urte honetako irailean, prozesu horri berari jarraipena emanda, esperientzien hartu-eman bat egin genuen El Salvadorren bertako La Colectiva Feminista eta Kolonbiako Corporación para la Vida Mujeres que Crean antolakunde aliatuekin batera. Gainera, Gasteizko arreta psikosozialeko eta indarkeria matxistako gaietan arreta legal eta juridikoko Arabako Emakumeen Asanbladako hainbat profesionalak esperientzia horretan parte hartu zuten. Jardunbide egokien eta eragina duten estrategien trukea, non emakumeen elkarteak eta antolakunde feministak, erakundeak eta gaian profesionalak diren pertsonak, emakumeentzako indarkeriarik gabeko jendarterantz gerturatzen jarraitzeko indartu ginen.



San Salvadorreko indarkeria egoeran dauden emakumeei arreta osoko eta prebentzioko erakunde eta sektore arteko Mahaian ordezkari izan zirenen parte hartzea. 2018ko iraila.

Abortuaren zigor gabetzerako Salvadorren kode penalaren erreformaren aldeko sentsibilizazio sozial eta erakundeen jarrera hartzea eskatzeko kanpaina

2018an El Salvadorren kode penalaren erreforma eskaerak babesten jarraitu genuen, zio batzuetan abortuaren zigor gabetzea helburu. Beste sei euskal GGKEekin aurrera eraman den kanpaina hori 2017an hasi zen. Aurten, Europako Biraren aitzakian, Teodora Vás-

quezen bisita izan genuen, abortatzeagatik espetxeratuak emakumeetako bat eta 2018ko otsailean askatu zutena, kartzelan 10 urte pasa ostean. Bere bisitan Bizkaiko Batzar Nagusiekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin bilerak egin ziren. Komunikabideetan elkarrizketak ere egin ziren eta Vitoria-Gasteizen eta Bilbon jendaurreko bi hitzaldi antolatu ziren. El Salvadorren abortua erabat zigortua egotearen ondorioak eta berau zigor gabetzeko eta arrazoi horregatik kartzelan dauden emakumeak askatzeko beharrezkoak diren lege erreformak egiteko nazioarteko presioaren beharra Euskal jendarte eta erakundeetara iristeko asmoarekin.



Teodora Vásquezekin solasaldiak. 2018ko apirila.

Ikusezinean bidaiatzen

Prozesu honek, gure antolakundeetan genero ekitatearen aldeko antolakundeko aldaketa prozesuak bultzatzeko, hainbat antolakunde elkarrekin lanean ari garen prozesu kolektiboa sustatzeko gure apustua mantentzen du. Ikusezinean bidaiatzen 2015ean hasi zen eta 2018an etapa garrantzitsu bat itxi dugu. Urte honetan zehar bost euskal antolakunde (Joxemi Zumalabe Fundazioa, ESK sindikatua, Setem Hegoa Hegoa, Hegoa eta Mugarik Gabe) bidaiak esperimentera jarraitu dute eta maiatzean bidaiari guztien, aitzindarien (euren jardunbide egokiak planteatu zizkiguten antolakundeak) eta bide horiek lagundu dituen tripulazioaren arteko Jakintzen Hartu-emanak izan genuen. Urte bukaeran beste une berezi bat izan genuen, hiru urte hauetako lanaren ikaskuntzak Bidaiak Gida bezala publikoki aurkeztu genueneko.

Nola jardunbide egokien inguruko informazio guztia duen bidaiak gida hori, hala ekitatearen aldeko antola-

kunde aldatetik bidaiarako gomendioak eta txango moduan emandako zenbait erreminta, online eskura daude <http://www.mugarikgabe.org/viajandoporloin-visible>



«Ikusezinean bidaiatzen: Eraldaketa feministarako antolakundeko aldaketa» jardunaldiak. 2018ko abendua.

Genero ekitatearen aldeko antolakundeko aldaketa

Mugarik Gaben genero ekitatearen aldeko antolakundeko aldaketa prozesua bultzatzeko erronkarekin jarraitzen dugu, ezin zen bestela izan. Azken urte hauetan, Ikusezinean bidaitzen prozesuko parte hartzaileekin batera. Mugarik Gaberen kasu zehatzean, aurten ikuspegi feminista batetik botereen azterketa indartzen jarraitu dugu, batzarraren espazioan zentratuta. Horretarako horien erraztea bultzatzen ari gara, rol hori agerikoago eginda eta beharrezko denborak emanda. Eta beste alde batetik, erabaki guneetan ere emozioak bistaratuta. Bidaia ez da laburra, ezta erraza ere, baina merezi duela argi izaten jarraitzen dugu.



Mugarik Gabeko batzarra. 2018ko ekaina.

LANKIDETZA

CORPORACIÓN PARA LA VIDA MUJERES QUE CREAN (KOLONBIA)

2018an, Kolonbian, gatazka armatuan indarkeriaren biktima izan eta bizirik atera diren emakumeentzako laguntzaren testuinguruan, azpimarratu behar da Colectiva Justicia Mujer eta Kanadako Abogados sin Fronteras taldearekin aliantzan aurrera eramandako auzi estrategikoaren eragina. Prozesu horretan hainbat estrategia garatu dira, hala nola, formakuntza, ikerketa, ekintza juridikoa eta komunikazioa. Bost kasu adierazgarriren bitartez, osasun fisikorako, mentalerako, sozialerako eta sexu osasunerako eskubidea itzultzea eskatu da aldeko epaiak lortuta. Gainera, Consejo de Seguridad Pública para las mujeres kontseiluan ikuspegi bereizgarria duen genero azpibatzerde bat sortzea ere lortu da. Gertakariak lurraldea gainditu eta naziora salto egin du, Unidad de Atención y Reparación Integral a Víctimas unitatera.



Escuela violeta para la construcción de la paz y equidad desde la niñez ekimenaren tailerra. 2018ko abuztua.

Bestalde, aurten Escuela Violeta para la construcción de la paz y equidad desde la niñez (haurtzarotik ekitatea eta bakea eraikitze eskola) ekimena abian jarri da. Formakuntza prozesu bat da, lehen haurtzaroko 30 hezkuntza eragilerekin generoan, indarkerietan eta zainketa emozionalean janzteko egiten dena, eskumena duten erakundeetan kontrol eta eragin politikoko ekintzekin lotua, genero ikuspegia hezkuntzan transbertsal bihurtu dadin. Irailean emakumeen Giza Eskubi-deen inguruko XVI. txostena aurkeztu zen: Violencias sexuales en niñas y adolescentes (Neskatila eta nerabeetan indarkeria sexualak). Era berean, berritzailea izan da eta harrera oso ona izan du Mujeres que Crean taldeak sare sozialetan sexu indarkeriaren inguruan garatutako lanak: En las redes no me enredo.

AXAYACATL (NIKARAGUA)

Aurten, Axayacatl emakumeen antolakundearen lan egonkortasuna herrialdeko krisi sozial, politiko eta ekonomiko sakonaren testuinguruak baldintzatu egon da baina ez da pausatu. Axayacatlek Masayako 9 departamenduetako komunitate desberdinetan, emakumeen giza eskubideen defentsari eta erabilerari eta ahalduntze integralari zuzendutako prozesuak garatu ditu.

Ekintzen momentuko geldialdi baten ostean, Ortega-ren aginduetara dauden armadaren, poliziaren eta pa-



Emakumeen eskubideen inguruko zine eztabaida saioa. 2018ko martxoa.

ramilitarren parte diren armatutako pertsonak Masaya hartu ondoren, eta herrialdean giza eskubideen defentsan aritzeko bizi den kontrako giroaren ginetik, Axayacatl antolakundeak emakumeen ahalduntze osoaren alde lanean jarraitu du.

Mugarik Gabek komunitateko babesleen ahalduntze ideologikoan egindako lana lagundu dugu, euren komunitateetan indarkeria bizi duten emakumeen laguntzan indartzeko aukera ematen dien gai juridiko eta psikosozialetan formakuntza emanda. Era berean, emakumeen ahalduntze ekonomiko bultzatu da hiru komunitatetako familia ortuen hobetzearen bitartez, ekoizpen aniztasuna handituta eta haren erabilerari eta merkaturatzean formakuntza emanda.

COLECTIVA FEMINISTA PARA EL DESARROLLO LOCAL (EL SALVADOR)

2004an jaio zen, emakume salvadortarren aitortzan eta defentsan laguntzeko premian sinesmen estua zuten emakumeek osatua dago. Eztabaida estrategikoko prozesu berrienean horrela definitzen dute euren egitekoa: "Gure energia feminista eta mugimendu bokazioa genero ezberdintasunak eta maskulinoaren nagusitasuna zalantzan jartzera eskaini, jendarte justu,

bidezko eta demokratiko baterako, emakumeen autonomia eta eraldatzeko, antolatze eta ekintzaitza politikorako gaitasunak indartuta, gure egunerokotasunetik eta tokiko eta nazioko errealitateetatik"

2018 honetan zehar, Colectiva azken urteetan aurrera eramaten ari zen lanari jarraipena eman zaio, bai mendebaldean, bai eta erdigunean, San Salvadorko metropoli eremuan ere; udalean eragin politikoa izateko estrategia feministetan lan eginda eta herrialdeko mendebaldeko emakumeen antolakundeetako antolakuntza lanak indartuta, genero indarkeria, sexu abusua eta nerabeen haurdunaldiak gutxiagotzeko lanak berariaz lagunduta. Gainera, El Salvadorko eta Vitoria-Gasteizko feministen arteko lan eta esperientzien trukaketatik abiatuta legeria hobekuntzetan eta indarkeria matxistari eta sexu eta ugalketa eskubideei dagozkien lege aplikazioen hobekuntzan aurreratu da. Bereziki eragina izan du Kode Penalaren erreformaren onarpenean, abortuaren inguruko 133. artikuluan, antolakundeek ekitearekin eta eraginarekin eta erakunde publikoen eskumenetatik. Bost udalerritako emakumeen antolakundeek antolakuntza eta eragin gaitasuna indartu da, indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidearen eta ugalketa eta sexu osasunerako eskubideen eraginkortasunerako. Eta Udal Gobernuen eta justizia langileen gaitasunak handitu dira genero indarkeriaren aurrean prebentziorako, babeserako eta sentsibilizaziorako.



Indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea bermatzeko aurrerapen eta erronken jendaurreko foroa. 2018ko iraila.

MUJERES POR LA DIGNIDAD Y LA VIDA - LAS DIGNAS (EL SALVADOR)

Antolakunde zibil feminista bat da bere burua «autonomo, urratzaile, sortzaile eta askotariko» bezala definitzen duena, 1990ean sortu zen eta emakumeen eskubideen aldeko borroketan erreferentea da herrialde osoan, bai eta ikuspegi feminista batetik egindako berdintasun, ekitate, eragin eta ikuskaritza sozialeko



Komunitateetako emakumeei ikuskaritza sozialean formakuntza emateko prozesua.

proposamenetan ere. Bere misioa proposamen filosofiko, ideologiko, etiko eta kritikoa bultzatzea da, bertatik arau patriarkal, kapitalista eta heterosexista errotik kentzeko. Eraldaketa sozial, politiko kultural, ingurugiroko eta ekonomikoaren bitartez, emakumeen menpeze eta zapalketa ezabatu, eta sexu eta ugalketa eskubideen errespetua eta gozatzea bermatuko dutenak. Hori lortzeko estrategia nagusiak hauek dira: Emakume taldeen antolaketa, ahalduntze indibidual eta kolektiboa sortuta, Estatuko erakundearen aurrean euren salaketan protagonista izan daitezen. Tokiko gaitasunen indartzerako formakuntza. Eragina, presioa, mobilizazio politikoa eta ikuskaritza herritarra baita lkerketa ere, emakumeen eta feministen mugimendua eraldatu eta lagundu nahi dugun emakumeen errealitate zehatzaren inguruko jakintzetan sakontzeko eta eguneratzeko, behar bezala oinarritutako proposamenekin.

2018 honetako lana, aurretik laguntzen ziren prozesuei jarraipena ematea izan da; bereziki indarkeria sexualaren ondoriozko nerabeen haurdunaldien prebentzioan, sexu eta ugalketa eskubideen sustapenean eta askotariko gaitasunen indartzean: antolakuntza, parte hartze politikoa, eragina eta ikuskaritza soziala. Era berean, emakume heldu eta gazteen ahalduntzea bultzatzea, indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egiteko, euren sexu eta ugalketa eskubideen defentsan autonomia ekonomiko eta pertsonalaren alde, eta sentsibilizazio sozialean aurrera egiteko eta kolektibo sexisten iruditegian aldaketa emateko, horrela, emakume eta gizonezkoen arteko ekitatearen eta berdintasunaren aldeko kultura baterantz gerturatzeko.

ALIANZA POLÍTICA SECTOR DE MUJERES (GUATEMALA)

Iruzuraren, zigorgabetasunaren, krisi instituzional eta politikoaren eta giza eskubideen atzerakadaren aurkako borrokarekin lotuta Guatemalan bizi den egoeraren aurrean, Alianza Política Sector de Mujeres an-

tolakundeak bere strategiaren barruan hainbat lan lehenetsi zituen, hala nola, lana berrartu eta indartzea; elkartasuna indartzeko, jarrera hartzeko eta salatzen helburuarekin nazioartean egituraketa eta intzidentzia politikoa; Guatemalan giza eskubideen aldeko borroka babestea eta laguntzea eta bereziki, hainbat herritako emakumeen, mayia, xinka, garifuna eta mestizoen eskubideak babestea.

Horregatik, Emakumeen Mundu Martxaren 11. Topaketan parte hartu zuela aprobetxatuta, elkartruckerako, sentsibilizatorako, salaketarako eta berri emateko Bira bat egin zuen, emakume, feminista eta Giza Eskubideen defendatzaile gisa lurraldean eta nazioan egiten ari direna azaltzeko. Horrela bada, Isabel Sanzek gure artean aste-bete eman zuen, hainbat erakunde bisitatu eta zenbait kolektiborekin hitzaldiak eman zituen.

Jarrera hegemonikoaren aurrean proposamen politiko emantzipatzailea egiten dute, Ongi Bizitzetik, pertsona guztientzat naturaren parte gisa, bizitzaren zaintzan erantzunkidetasuna bilatuta. Horrela, zaintzen aldeko Mahai nazionala eratu da, horren helburua da emakumeek zaintzari egindako ekarpen sozial eta ekonomikoa ikusaraztea eta erantzukizun sozialaren eta estatalaren inguruko proposamenetan jarrerak hartzea Giza Eskubideen testuinguruan. Hori formakuntza prozesuen, ekintza eta egituratze planen bitartez landu dute, proposamenak eta ekintzak egiteko aukera ematen dutenak.



Uretatik martxa 2018ko maiatza.

BIZIMODU JASANGARRIEN SAILA



HEZKUNTZA

Urte honetan zehar, giza eskubideen ezin konta ahal bortxaketa salatzen jarraitu dugu, bereziki nekazaritzako elikagaien, energiaren, ekonomiaren eta zaintzen arloan egiten direnena, eta baita bestelako bizimodu jasangarrien ereduak ikustarazten ere. Apustu honetan, aldaketak erdiesteak elkarlana eskatzen duela konbentzituruta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste kolektibo batzuekin sarean egin dugu lan.

TIPI-TAPA bagoaz! Bizimodu jasangarrietarantz kanpaina

«Tipi-Tapa bagoaz! Bizimodu jasangarrietarantz» kanpainaren testuinguruan garatutako lanarekin jarraitu



Amurrioko Antzerki Foroaren kartela. 2018ko ekaina

dugu, Euskal Herriko eta Latinoamerikako 19 kolektibok sarean egindako lanari jarraipena ematen diona. Kanpaina horrek bizimodu jasangarriak martxan jartzeari lotutako giza eskubideen askotariko bortxaketak ikusarazteko ekintza kolektiboak barnebiltzen ditu, herrialde guztietan eredu justu, jasangarri eta bidezkoetarantz joateko oztopo bezala.

Prozesu horren barruan, hainbat tresnaren bidez, eragin politiko eta sozialeko estrategia bat garatu da. Horietako batzuk honako hauek izan dira: hainbat udalerritako kaleetan antzerki foroak egitea (Amurrio, Galtza Añana, Bilbo eta Gasteiz), askotariko komunikabideetan agertzea, euskal Erakundeetan eskubideen urraketen aurkezpenak egitea (hiru hiriburuetako Udaletan eta Aldundietan), Auzitegiaren esperientziaren aurkezpena Loiolako Kultur Etxean (Donostia) egindako Jardunaldi Ekologikoetan eta Nafarroako Mugarik Gaberekin Iruñean egindako trukean, bai eta aliatuak diren antolakundearen aldizkari espezializatuetan ere (Economistas sin Fronteras taldearenean esaterako).

Gainera, auzitegiaren esperientziak zortzi auziak jasotzen dituen liburu bat sortzera eraman gaitu, akusazioko idatziekin eta adituek auzi bakoitzari egindako txostenarekin. Bizimodu jasangarriko eskubidearen aldeko Herri Auzitegiaren ondorio eta ikaskuntzak ere azaltzen dira. Prozesu horrekin guztiarekin, urte bukaeran Desazkundera eta Bizitze Onaren Sarearen Topaketak egin dira etorkizuneko ekintza ildo zehazteko. Informazioa guztia hemen dago: www.tipitapabagoaz.info

Bizimodu Jasangarrirako Eskubidearen aldeko Herri Auzitegia

2018ko otsailaren 23 eta 24an Bilbon Bizimodu Jasangarrirako Eskubidearen aldeko Herri Auzitegia egin zen. Auzitegi hori kolektibo asko eta askotarikoen sare lanaren fruitua izan zen (GGKE, sindikatuak, gizarte mugimenduak). Mundu osoan Bizitza Jasangarrirako eskubidearekin lotutako giza eskubideen urraketek duten zigorgabetasuna agerian utzi eta salatu zuen, Euskal Herriko, Espainiako Estatuko, Mendebaldeko Saharako, El Salvadorko, Argentinako eta Mexikoko lekukotzak aurkeztuta.

Auzitegiak salaketa elementu gisa balio izan duela espero dugu, bizitzaren alde munduko hainbat txokotan aurrera eraman diren erresistentzia prozesu eta protesta sozialen arteko elkartasun adierazpena, eta giza eskubide horien urraketak jasan izan dituzten pertsonenganako erreparazio sinbolikoa izatea.

APP bat egin ziren, bai eta zenbait iritzi artikulua ere. Hori guztia www.consumoresponsable.info/eu/hasiera/ helbidean eskura dago.



“Zeinek zaintzen du eta nola Vitoria-Gasteizen?” ikerketaren aurkezpena Vitoria-Gasteizko Emakumeen Berdintasunerako eta Ahaldunderako Eskolan. 2018ko urtarrila.

Saretuz, Donostiako Kontsumo Arduratsuaren Sarea

Donostian, Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzailearen aldeko Saretuz Sarean parte hartzen eta elkarlanean dinamizatzen jarraitu dugu. Aurten, laneko ardatz nagusia zaintzek gure eguneroko ohiturekin eta kontsumo ohiturekin duten harremana izan da. Zentzu horretan, #ZainduzKontsumitu - #ConSumoCuidado lemapean, maiatzean eta irailean hainbat hartu-eman eta jardunaldi egin ziren gaian sakontzeko asmoarekin.

Martxoaren 17an, Kontsumitzaileen Nazioarteko Egunearekin bat eginda, ogi xahuketa salatzen kale ekintza bat burutu genuen. Zehazki, galtzen uzten den ogi guztia edukiontzi batean eta ogi piloetan ikusarazi genuen, gaiaren inguruko informazioa eta aurreko egunetako ogiarekin egin daitezkeen errezetak banatu ziren, gainera, ogia olioarekin eman genuen. Beste alde batetik, aurten Sarearen webgunea berritzi da (www.saretuz.eus) eta Saretuz Mapari irizpide eta ko-



Bizimodu Jasangarrirako Eskubidearen aldeko Herri Auzitegiaren itxiera. 2018ko otsaila.

Zentzuz Kontsumitu-Consume con Sentido

Arabian, Setem Hego Haizearekin eta Medicus Mundi Arabarekin lanean jarraitzen dugu. Gure lana ekonomia soziala eta solidarioa indartzera bideratu da hiru ardatzen bidez: erosketara publiko arduratsua, elikadura burujabetza eta zaintzak. Sustatutako ekimenen artean, REAsek bultzatutako Merkatu sozialean gure parte hartzea nabarmendu genezake, Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Ekintza Planaren zehaztapen eta garapenean, eta Euskal Herria elikadura burujabetzatik politika publiko sozialen inguruko ikerketa parte hartzaile batean gure lankidetzaz.

Bestalde, garrantzitsua da Zeinek zaintzen du eta nola Vitoria-Gasteizen? ikerketa berreskuratzea, Vitoria-Gasteizen etxeko langileen egoera aztertzen du, kontsumo kontziente eta arduratsuko iritziak zabaltzeko helburua duten ikus-entzunezko hainbat material eta



Kontsumitzaileen nazioarteko Egunean egindako salaketa ekintza. 2018ko martxoa.

mertzio berriak batzen jarraitu dugu, bertan kontsumo arduratsua egiteko eta hiria beste era batera bizitzeko hamaika aukera agertzen dira. Mapa horren erabilera handitzeko eta Sarea ezagutarazteko, umorezko bideo bat egin da 2019an zehar zabalduko dena.

Bukatzeo, Emaús Gizarte Fundazioak eta Mugarik Gabek urte askotan dinamizatu ostean, behin legalki eratuta, 2018.a Saretuz autonomoki ibiltzen hasi den urtea izan da. Horretarako barne egituratze prozesu bat abiatu da, begirada Sarea osatzen dugun pertsona eta antolakunde zaintzan jarrita.

LANKIDETZA

ACPA (KUBA)

Asociación Cubana de Producción Animal (ACPA) elkartearekin lanean jarraitzen dugu Cienfuegos eta Santiago probintzietan, nekazaritzako eta abeltzaintzako eredu elikadura burujabetzarantz eraldatzea lagunduta, Kubako Gobernuaren nekazaritzako elikagaien estrategiarekin koherentzian. Egun martxan dauden proiektuak produkzio unitateak indartzean zentratzen dira, ekoizpena areagotu eta dibertsifikatzeko, eta biztanleriaren elikadura eta ekonomia beharrei estaldura emateko asmoz.

Laguntza, batetik, formakuntzazkoa eta tekniko da, eta bestetik, teknologikoa, azpiegiturak berrituta, ureztatze sistemak, jezte sistemak eta bestelako hornidurak ezarrita. Era berean, existitzen diren genero ez-



Santiagoko Salvador Rosales UBPC kooperatiban bilera. 2018ko uztaia.

berdintasunei arreta berezia jartzen zaie, emakumeek kooperatibetako erabaki guneetan parte hartze handiagoa eta sortutako enpleguetarako sarrera handiagoa izatea bermatuko duten neurriak ezarrita. Zentzu horretan, ACPA elkartean genero ekitatearen aldeko antolakunde aldaketa prozesua laguntzeko ekintzak eta herrialdeko Nekazaritza Ministerioko Genero Estrategiaren abiaraztea bultzatu dira.

XOCHILT ACALT (NIKARAGUA)

Orain dela 25 urte baino gehiago Mujeres Xochilt Acalt elkarteari eskainitako babesak jarraitzen du. Elkarreak, Telica eta batez ere Larreynaga-Malpaisillo udalerrietako komunitateetan lan egiten du, landa eremu batean eta hiriburutik urruti, egungo krisi egoeran egonkortasun handiagoa ahalbidetu duena.

Landa garapen bidezkoaren eta jasangarriaren sustapenean sakontzen jarraitu da. Horretarako, ikuspegi oso batetik antolakunde komunitarioen formakuntzan lan egiten jarraitu da, indarkeria matxistaren, berdintasunaren, sexu eta ugalketa eskubideen edota norbere



Dibertsifikatutako nekazaritza eremuak Malpaisillon. 2018ko martxoa.

buruaren zaintzaren inguruko ikaskuntza eta hausnarketa espazioak bultzatuta. Hori guztia, eragin politikoko eta sozialerako egituratze politikoko estrategia bati lotuta.

Emakumeen ahalduntze ekonomikoarekin lotutako lanean, jasangarritasun eta elikadura burujabetza ikuspegi batetik, ekonomia gaitasunetan handitzea eta ekoizpenean egonkortze handiagoa eta euren ekimen ekonomikoetan sarrerak areagotzea lortu dugu. Horretarako, laguntza tekniko jarraitu batez gain, zenbait ekintza burutu dira, hala nola, putzuak eraikitzea ura izatea bermatzeko, ekoizpena dibertsifikatzea edo emakumeetako batzuentzat lurren titulartasuna aldatzea.

HERRI INDIGENEN ARLOA



HEZKUNTZA

